

Komikiaren datuak

IZENBURUA:

EGILEAREN IZENA:

HIZKUNTZA:

Euskara Gaztelania Frantsesa Ingelesa

LABURPENA:

Kontaktu datuak

IZEN ABIZENAK:

HERRIA:

E-POSTA:

P.K.:

JAIOTZE DATA:

HERRIALDEA:

TELEFONOA:

*IKASTETXEA:

HELBIDEA:

Nola jakin duzu nanoKOMIK-en berri?

Poster iragarkia Egunkaria Irakaslea Sare sozialak Beste bat. Zein?

*Hautazkoa





CIC nanoGUNE eta Donostia International Physics Center-ek (DIPC) **12 eta 18 urte bitarteko gazteei** zuzendutako erronka abian jarri dute 2016ean zehar garatuko den nanoKOMIK proiektuaren baitan. Erronkaren bitartez, istorio original eta ideia berriztagarriak sortuko dituzte gazteek, eta ondoren, marrazkilari profesional batek **lehenengo nanofikziozko komiki partehartzailean** birsortuko ditu.

NOLA SORTU ZURE NANOKOMIKIA

Erronka "**nanobeteredun**" superheroi bati buruzko istorio grafikoa sortzean datza, hau da, nanozientzia eta nanoteknologiari esker gaitasun eta trebetasun sofistikuak bereganatzen dituen pertsonaia. Horretarako, bi gauza baino ez dira jakin behar:

- > **nanoboterea nola sortu:** pertsonaiaren indarra edo trebetasuna sortzeko, zenbait nanobotere eta hauen atzean dauden materialen propietate harrigarriak ezagutu ahal izango dituzte webgunean. Ariketa honek, inspirazio iturritzat lagunduko die, nanobotere berri bat sortzeko edo dagoeneko existitzen den bat berrinterpretatzeko.
- > **komikia nola sortu:** webgunean eskura izango dituzte komikia sortzeko oinarritzko pausoak.

TAILERRAK

Erronkak irauten duen hilabeteetan zehar **komiki eta zientzia tailer irekiak** antolatuko dira Bilbao, Donostia, Vitoria-Gasteiz, Iruñea, Hego Lapurdiko Hirigunean eta Bordelen. Tailerrean, parte-hartzaileek beraien nanokomik propioa sortuko dute.

PARTE HARTU

Erronka herrialde guztietako 12 eta 18 urte bitarteko gazteei dago zuzendua. Taldeka nahiz banaka hartu daiteke parte. Euskarazko, gaztelaniazko, frantsesezko eta ingelesezko lanak onartuko dira. Parte-hartzaile bakoitzak hiru lan aurkeztu ahal izango ditu gehienez.

KOMIKIAREN AURKEZPENEA

Pertsonaiak eta gidoiak originalak izan beharko dute. Teknika eta estiloa libreak izango dira; lanak txuri beltzean nahiz koloretan aurkeztu ahal izango dira, eskuz eginak bere osotasunean edo ordenagailuz sortuak edo ukituak. Komikiak argitaragabea izan beharko du, eta beste lehiaketa batzuetan saritu gabea.

Komiki istorioa gehienez A3 eta gutxienez A4 tamainan aurkeztuko da, gehienez bi orrialde erabiliz. Lan digitalizatuen kasuan, inpresio bat aurkeztuko da orrialdeko, A4 tamainan edo edozein tamaina proportzionalen 300 ppp erresoluzioarekin.

AURKEZTEKO EPEA

Erronkan izen-emate epea irekita egongo da **2016ko otsailaren 1etik apirilaren 30era** bitartean. Azken egunean bidalitako lanak onartuko dira, baina epea kanpo jasotakoak zuzenean baztertuak izango dira.



LANEN BIDALKETA

Lanak **zuzenean** webgunean aurkeztu ahal izango dira **2016ko otsailaren 1 eta apirilaren 30 bitartean** edo webgunetik deskargatu ahal izango den izen-emate **inprimakia** hurrengo helbidera bidaliz:

Donostia International Physics Center (DIPC)
Manuel Lardizabal 4
20018 Donostia - San Sebastián
(Gaia: nanokomik)

Izen-emate epea amaitu ondoren, aurkeztutako komiki lan guztiak webgunean egongo dira ikusgai.

SARIAK

Aurkeztutako lanak hiru sariren artean lehiatuko dira; bi epaimahai ofizialak emandakoak eta hirugarrena hiritarrena, webgunean gaituko den atalean egingo den botaketa irekiaren bitartez.

- > **Lehenengo saria:** 400 eurotan zenbatetsia.
- > **Bigarren saria:** 250 eurotan zenbatetsia.
- > **Hirugarren saria:** 100 eurotan zenbatetsia.

Aipamen berezia merezi duten lanei aparteko saria emateko eskubide izango du batzorde antolatzaileak.

Epaimahaiak lehenengo bi sarietatik edozein eman gabe utzi ahal izango du.

SARI BANAKETA

DSS2016-ko *Zapart!* jaialdian, lan nabarmenenak eta sarituak ezagutzera emango dira. Topaketa honetan, hiritarrek nanobotereei buruzko ikuskizun batez gozatzeaz gain, publikoaren saria banatuko dute.

EPAIMAHAIA


Batzorde antolatzailearen eginkizuna da epaimahaikideak izendatzea. Epaimahaia bost lagunek osatuko dute.

Epaimahaikideek, lehendabiziko bilkuran erronkako lanak puntuatu eta baloratzeko irizpideak ezarriko dituzte. Epaimahaiak istorio grafikoa sortzerakoan izandako imajinazio eta originaltasunean oinarrituko dute batez ere beraien balorazioa, eta ez horrenbeste, irudien bikaintasunean.

KONTAKTUA

Edozein zalantza argitzeko, jarri harremanetan antolakuntzarekin hurrengo helbidean:

Amaia Arregi
DIPC
Tel. 943015893
info@nanokomik.com



Lege-baldintzak

DIPC eta Elhuyar ez dira materiala bidaltzean, birusak edo bestelako arazoak direla eta, sor daitezkeen arazoen erantzule.

Oinarri hauek onartzea nahitaezkoa da erronkan parte hartzeko, eta, beraz, sariak irabazi ahal izateko. Partaideren batek oinarrietan ezarritako baldintzak ez baditu betetzen, erronkatik kanpo geldituko da, automatikoki.

Komiki lanak ezingo dira, inolaz ere, beste hizkuntza batean beste egile batzuek garatutako obren itzulpen hutsak edo lan eratorriak izan. Edozein kasutan, hirugarren baten parte-hartzea onartuko da komiki lanaren itzulpenean, erronkan onartutako hizkuntzetako batera itzultzeko.

Egile-eskubideak

Erronkara hirugarrenen jabetza intelektualaren edo industrialaren eskubideak urratzen dituen materialik ez dutela aurkeztuko bermatu behar dute partaideek. Horrenbestez, partaideek auzi horretatik kanpo utzi behar dituzte CIC nanoGUNE eta DIPC. Hortaz, partaideek hirugarrenen eskubideei buruzko arauak ez badituzte betetzen edo arau-hausteren bat egiten badute, CIC nanoGUNE eta DIPC ez dira horren erantzule egingo. Erronkako parte-hartzaileari dagokio CIC nanoGUNE eta DIPC ardura horretatik salbuestea.

Erronkako partaideek CIC nanoGUNE eta DIPCri utziko dizkiote aurkeztutako komikiak ustiatzeko eskubidea komikia erabili, zabaldu, banatu, eman, publikoki komunikatu eta Internet edo bestelako ikus-entzunezko baliabideen bidez dibulgatu, erreproduzitu eta erakusteko eskubideak barne. Halaber, CIC nanoGUNE eta DIPCk komikia eraldatu ahal izango dute, muntaia laburragoak egiteko edo beste komiki batzuekin batera editatzeko. Lagapen hori dohainik eta modu ez esklusiboan egingo da, mundu osorako.

Hautatutako eta jasotako lanak sustapenerako eta/edo hedapenerako erabiltzeko eskubidea dute antolatzaileek. Komikiak atal honetan zerrendatu ez diren xedeetarako erabiltzeko, egilearen baimena beharko da.

Ez dira onartuko aurrez sarituak izan diren lanak. Era berean, komikiek ezingo dute pertsona fisiko edo juridikoen jabegoa, osotasuna edo irudi ona kaltetu.

Aurkeztutako komikiak ustiatzeko eskubidea lagatzeagatik, CIC nanoGUNE eta DIPC-k eskubidea dute komikiak Internet edo bestelako ikus-entzunezko baliabide edo erakusketa baten bidez zabaltzeko edo argitaratzeko, baina ez daude horretara behartuak.

Erronka amaitu ondoren, erakundeak egoki deritzen komikiak eskuragarri egongo dira www.nanokomik.com helbidean eta nanokomik proiektuaren sare sozialetan, CIC nanoGUNE eta DIPCren zientziaren dibulgaziorako web-orrietan, antolatzaileek egoki deritzoten arte.

Azken klausulak

Erronkan parte hartzeko ezinbestekoa da klausula hauek onartzea. Oinarrietan jasotzen ez diren gaiak dagokienez, CIC nanoGUNE eta DIPCk izango dute erabakitze eskubidea.

Antolatzaileak ez dira arazo teknikoak direla eta ikus ezin daitezkeen komikien erantzule izango. Epaimahaikideek ezingo dute lehiaketan parte hartu.

CIC nanoGUNE eta DIPC ez dira egingo beren kontrolpetik kanpo dauden, edo sareko operadore, zerbitzu-emaile bitartekari edo hirugarrenek sortutako jazoera hauen erantzule: galerak edo atzerapenak, etenaldiak, funtzionamenduaren eskuragarritasun edo jarraitutasun eza, transmisio-arazoak, informazioaren galera, iruzurra, sareko akatsak, softwarearen funtzionamendu-arazoak, sarrera-, komunikazio- edo erantzun-akatsak, lehiaketaren aldaketak eta abar.

CIC nanoGUNE eta DIPCk eskubidea izango dute dokumentu ofizialen bidez (NAN, gidabaimena eta abar) lehiaketako partaideen nortasunari buruzko egiaztapenak egiteko.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena betez, zure helbide elektronikoa Donostia International Physics Center-en (DIPCen) titulartasuna duen fitxategi batean sartuta dagoela aitortzen dugu. Horren helburua DIPCk eta/edo beste erakundeek antolatzen dituzten zientzia-dibulgazio ekitaldien berri ematea da. Nahi izanez gero, aipatutako Legean aurreikusitako sarbide, zuzenketa, ezeztapen eta aurkaritza-eskubideak balia ditzakezu; horretarako, DIPCra zuzenduz, postaz Manuel Lardizabal pasealekua 4, 20018 Donostia (Gipuzkoa) helbidera edo posta outreach@dipc.org helbidera.